

Lehen Hezkuntza 3º, 4º

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1



IKASGAIA	GAI EKOSIZIALAK	INGURUMEN-POLITIKAK
Ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> Ekodependentzia Biosferaren funtzionamendua Aldaketa ekosozialeko eragileak 	<ul style="list-style-type: none"> Ekonomia zirkularra Ura Hondakinak Kontsumoa Biodibertsitatea Ohitura jasangarriak Lurzorua Aldaketa klimatikoa

Ikas egoeraren markoa

TESTUINGURUA. Ekoetxea Añana-Sobron Ebro ibaiak zeharkatzen duen haitzarte eder batean dago, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatutako lurralde baten barruan. Paisaia menditsua da, eta biodibertsitate aberatsa du, arriskuan dauden espezieak eta batasunaren intereseko habitatak barne.

Abiapuntua

*Zergatik da garrantzitsua ura? Zer eskaintzen digu?
Zer ekosistema sortzen dira bere inguruan?*

AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA. Ikas esperientzian zehar egindako ekintza ezberdinei esker ikasleak naturatik hurbilago egongo dira eta hau zaintzearen garrantziaz ohartaraziko dira.



HELBURU KOMPETENZIALAK


- Oinarrizko ezagutzak eskuratzea, Sobrongo ingurune naturalean bizitako esperientzia esanguratsuen bidez, iraunkortasun-irizpideen arabera ikasleen pentsatzeko eta jarduteko modua aldatzeko.
- Naturaz gozatzea jolas aske eta gidatuaren bidez, eta natura ezagutzea bizipenen eta benetako hurbiltasun-esperientzien bidez.
- Biodibertsitatea zer den jakitea, haren garrantziaren zergatia ulertzeko.
- Ibaiko biodibertsitatea ezagutzea, izaki bizidunen arteko desberdintasunak ulertzeko.
- Ingurune natural hurbilena behatzea eta aztertzea, ingurune horretan aurki ditzakegun izaki bizidunak eta bizigabeak bereizteko.
- Metodologiak eta aire zabaleko hezkuntza aplikatzea, ikasteko tresna pedagogiko gisa.
- Kontzentrazioari, sormenari eta hizkuntzari dagokienez, ikasleen garapen kognitiboa bultzatzea.
- Naturaren onurak ezagutzea eta horiek gordetzeko beharra ulertzea, errespetuzko jarrerak garatzeko.



Curriculumaren zehaztapenak

INGURUNE NATURALAREN, SOZIALAREN ETA KULTURALAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HHK KE STEM KD KPSII HK EK	1,2,3 1,2 1,2,4,6 1,2 4,5 4 1,3	2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilia, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko.	<p>2.1 Azterketa egiten ikastea, modu gidatuan eta galderen bidez, ezagutzak modu kooperatiboan partekatuz eta pentsamenduak historian zehar izan duen bilakaera ulertuz, zientziak horretarako ematen dituen ebidentziak adibide gisa erabiliz.</p> <p>2.2 Ikerketak eskatzen duenean, esperimenduak gidatuta egitea, hainbat ikerketa-teknika erabilia, tresnak eta gailuak modu seguruan erabilia, behaketa eta neurketa zehatzak eginda eta behar bezala erregistratuta.</p> <p>2.3 Natura-, gizarte- eta kultura-inguruneari buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak interpretatuz eta egindako iragarpenekin alderatuz.</p>	<p>A. Kultura zientifikoa</p> <p>1. Jarduera zientifikorako hastapenak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikerketa esperimental edo dokumental baterako miaketa-prozedura egokiak, metodo zientifikoa erabilia. <p>3. Materia, indarrak eta energia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Materiak dituen aldaketak; eguneroko bizitzako egoeretan materiaren gertatzen diren prozesuak eta eraldaketak.



Lehen Hezkuntza 3º, 4º

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

INGURUNE NATURALAREN, SOZIALAREN ETA KULTURALAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HHK KE STEM KD KPSII HK EK	1,2,3 1,2,3 5 2,3 1,2,3 3,4 1	4. Norberaren gorputza, norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak ezagutzea eta horien kontzientzia hartzea, eta ezagutza zientifikoan oinarritutako ohitura osasungarriak garatzea, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko.	4.2 Ongizate emozionala eta soziala sustatzen duten jarrerak erakustea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuta, enpatia erakutsita eta harreman afektibo osasungarriak ezarrita. 4.3 Norberaren gorputza ezagutzea eta onartzea, eta aniztasuna gizartearen elementu aberasgarri gisa baloratzea eta errespetatzea, desberdina denarekiko tolerantzia-jarrera erakutsita.	C. Gizarteak eta lurraldeak 3. Alfabetatze zibikoa - Gizartean bizitzeko konpromisoak eta arauak.
HHK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,3 1,2 1,2,4,5,6 1 4 1,4 1 1,2	5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.	5.2 Natura-, gizarte- eta kultura ingurunekeko elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, eta ezartzen diren harremanak ulertzea. 5.4 Natura- eta kultura-ondarea balioestea eta babestea, guztien ondasuntzat jotzea, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartzea eta ondare hori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatzea.	A. Kultura zientifikoa 2. Bizitza gure planetan - Naturaren erresumak ikuspegi orokor eta integratu batetik, ekosistemen ezaugarrien azterketa eta analisis oinarri hartuta. Elementuen eta baliabideen arteko oreka. Euskal Herriko ekosistemak. - Animalien berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenarekin lotutako azpialdeetan sailkatzeko eta bereizteko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea. - Landareen berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenaren arabera sailkatzeko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea.



Lehen Hezkuntza 3º, 4º

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

INGURUNE NATURALAREN, SOZIALAREN ETA KULTURALAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ONINARRIZKO JAKINTZAK
HHK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5,6 2,3,5 4 1,2,3,4 1,2,3 1	6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraukorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	6.1 Pertsonen bizitzaren eta inguruneke elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboez eta negatiboez jabetuta eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuta. 6.2 Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura jasangarri egokiak praktikan jartzea. 6.3 Inguruneke arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuta.	A. Kultura zientifikoa 2. Bizitza gure planetan - Gizakiak ekosistemekin duen harremana (hurbiltasunetik globaltasunera) gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera egokiak eta txarrak eta horien ondorioak. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. - Biodibertsitatea. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak (habitata suntsitzea, espezie inbaditzaileak, klima-aldaketa, kutsadura, baliabideak gehiegi ustiatzea...) C. Gizarteak eta lurraldeak 1. Egungo munduaren erronkak - Lurra eta hondamendi naturalak. Unibertsoan gertatzen diren dinamikak, mugimenduak, elementuak, eta horien lotura Lurrean eta eguneroko bizitzan eta ingurunean eragina duten fenomeno fisiko jakin batzuekin. - Espazioaren ezagutza. Espazioaren irudikapena. Lurraren irudikapena lur-globoaren, mapen eta baliabide digital desberdinen bitartez. Mapak eta planoak eskala desberdinetan. Orientazio teknikak, ingurune fisikoaren elementuak eta lokalizazio espazialerako beste bitarteko batzuk behatuta. - Klima, paisaia eta erliebea. Arroken oinarriko sailkapena. Fenomeno atmosferikoak. Datu meteorologikoak hartzea eta erregistratzea, eta horien irudikapen grafikoa egitea. Informazio Geografikoaren Teknologiak (IGT). Klima-desberdintasunen eta paisaia-aniztasunaren arteko lotura. 2. Gizarteak denboran zehar - Historiaren aztarnak inguruko leku, eraikin, elementu, lanbide eta usadioetan.




Lehen Hezkuntza 3º, 4º

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

INGURUNE NATURALAREN, SOZIALAREN ETA KULTURALAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HHK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3 1,2 4 1,4,5 4 1,3 2 1	7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.	7.1 Historiaren etapak identifikatzea, gizakiok, Antzinarora arte, bizi izandako aldaketak deskribatuz, gizarteen bizimoduak alderatuz eta kausalitatea, aldiberekotasun eta jarraitutasun nozioak identifikatuz.	C. Gizarteak eta lurraldeak 4. Kontzientzia ekosoziala <ul style="list-style-type: none"> - Krisi ekosozial globala. Giza ekintza: klima-aldaketaren kausa eta ondorioei eta horiek inguruneke paisaietan duten inpaktuari buruzko sarrera. Arintze-neurriak. Naturaren kontserbazioa eta babesia. - Ekosistema naturalen eraldaketa eta degradazioa. - Giza ekintzen ondoriozko erantzukizun ekosoziala. Erantzukizun indibidualak eta kolektiboak. Animaliekiko tratu txarra eta horren prebentzioa. - Bizi-ohitura jasangarriak. Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, mugikortasun jasangarria eta hondakinen kudeaketa.



Lehen Hezkuntza 3º, 4º

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

Ikuspegi ekosoziala

IKASKUNTZA EKOSUZIALA

- * Giza ekodependentzia barneratzea. Bizitzaren sarearen parte garena ohartzea.
- * Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideia ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismoa ekozentrismoa igarotzea.
- * Naturak ingurunea egokitzeko eta eraldatzeko aurkitu dituen konponbideak, horiekin batera hedatzeko, gizakienak baino askoz handiagoak direla balioestea. Horregatik, giza ekintzak ekosistemen funtzionamenduan integratu behar ditugu. Biomimesia bizitza-estrategia duin egoki gisa baloratzea.
- * Bizi dugun zibilizazio-krisiaren egoera onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSUZIALAK

- * Izaki bizidun guztiak elkarrekin lotuta daudela onartzea.
- * Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar dituela adieraztea / Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar ez dituela ez adieraztea.
- * Bizitza osoari balioa ematea.
- * Beren ingurune naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren edertasunari balioa ematea.
- * Biodibertsitatea babesteko ekintzak egitea.
- * Bizitza osoaren babesari balio handia ematea, kulturalki arbuatzen gaituena barne (ornogabeak, adibidez).
- * Natura Lurra bere komenientziara eboluzionatzeko eta eraldatzeko gai izan dela nabarmentzea, adibidez zehatzen bat jarriz. Adibidez, oxigenoaren existentzia landareen ondorioa dela eta beste izaki bizidun batzuen hedapena ahalbidetzen duela.
- * Krisi ekologiko eta sozialari irtenbideak martxan jartzearen garrantzia adieraztea.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSUZIALAK

- * Ekodependentzia kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren baliabiderik gabe.
- * Ekodependentzia ikusezina (ekodependentzia dugun eguneroko bizitzako alderdiak).
- * Natura zaintzearen garrantzia.
- * Edertasuna izaki bizidunen aniztasunean eta oreka ekosistemikoetan.
- * Konexio emozionala naturarekin.
- * Berotegi-efektua: landarearen bidez erregulatzea eta bizitzarako duen garrantzia.
- * Oxigenoa: bere eraketa eta bizitzarako duen garrantzia.
- * Klima-aldaketa, krisi energetikoa eta materiala, eta biodibertsitatearen galera gizarte-inpaktuak dituzten arazo gisa.
- * Baliabide finituen planeta batean etengabe hazteko ezintasunaren balorazioa.
- * Banakako eta taldeko ekintzaren garrantzia.

Lehen Hezkuntza 3º, 4º

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1

IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- * 9. Lurreko ziklo biogeokimiko handiak, zein neurritan aldatzen ari diren eta horiek lehengoratzeko modu batzuk ezagutzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- * Uraren zikloa azaltzea.
- * Uraren zikloaren gaineko inpaktuak identifikatzea.
- * Inpaktuek uraren zikloan eragiten dituzten kausak identifikatzea.
- * Produktu toxikoak ez erabiltzea defendatzea.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Uraren zikloaren aldaketaren arrazoi nagusiak: kutsadura, ibaien ibilguen aldaketa, gehiegizko erauzketa (batez ere nekazaritzarako), klima-aldaketa.
- * Uraren zikloa berrorekatzeko banakako neurriak: uraren erabilera eta kutsadura

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentia da FUHEM.



Lehen Hezkuntza 3º, 4º

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1



Metodologia



ESTRATEGIA

EREDU PEDAGOGIKOA:

Araoetan
oinarritutako
ikaskuntza

Zereginetan
oinarritutako
ikaskuntza

Gogoetan
oinarritutako
ikaskuntza

Beste batzuk




ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ikuspegi
sozioafektiboa

Ekintzarako
ikaskuntza

Ikaskuntza aktiboa



TEKNIKAK

OHIKOAK:

Ikus-entzunezkoak

Txoko edo
ingurunezkoak

Solasaldia

Entzute kolektiboa

Azalpenak talde
handietan

Beste batzuk

EZOHIKOAK:

Ur museoa